

1KASTOLAK

266



Bagatoz
inklusiortik
ekitatera



Argitaratzailea

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Errotazar bidea 126
20018 DONOSTIA
943 44 51 08

Argitaratze data

2025eko abendua

Koordinazioa

Amaia Lasa eta Arantza Munduate

Testuak

Koldo Aldabe

Diseinua

Iker Torres

Argazkiak eta ilustrazioak

Aritz Trueba

Inprimatzailea

GERTU inprimategia
Oñati. tel.: 943 78 33 09

Lege gordailua

SS 425-2015

AURKIBIDEA

HARIAN

04 ANIZTASUNA ETA
HEZKUNTZA INKLUSIBOA

SAKONEAN

12 BAGATOK LANERA, HEZTERA,
JOLASTERA, ERALDATZERA.

SOLASEAN

15 HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN
HEGIAK

IKASTOLAN

26 HISTORIA JOLASEAN,
TEKNOLOGIA ETA SORMENA
UZTARTUZ

28 GARBIKETA TEAM:
INGURUA ZAINDU,
KONTZIENTZIA SORTU

30 KOMUNITATERAKO
PROIEKTUA LH

32 BLAITU KLUBA:
MIHIAK EUSKARAZ
BUSTITZEKO EKIMENA

PLAZAN

34 HITZ ETA JOLAS



HARIAN



Bagatoz inklusiortik ekitatera

aldi Pedagogikoak

Bagatoz
indar berriz

IKASTOLAK

Bagatoz
inklusiortik
ekitatera

Aniztasuna eta **hezkuntza inklusiboa**

Aniztasuna eta inklusioa elkar lotuta doazen bi kontzeptu dira: denok ezberdinak garela adierazten du lehenak; aniztasun horri nola erantzun nahi diogun zehazten duen filosofia eta balioa da bigarrena. Ikastoletan oso presente daude biak, bai ikasleekin gaia lantzerako orduan, bai eta gure egunerokoa planifikatu eta gauzatzerako orduan ere. Urratsez urrats goaz hezkuntza inklusiboaren hobekuntza prozesuan, eta ikasturte honetan bultzada berezi bat eman nahi izan diogu gai honi. Gakoa aniztasuna aberastasun gisa ulertzea da, ospatu beharreko egitate bat, eta ez kudeatu beharreko erronka gisa.

Ikasleen arteko ezberdintasun guztiak (kognitiboak, emozionalak, sozialak, kulturalak, linguistikoak, fisikoak, generokoak edo jatorrikoak) aitortu, baloratu eta errespetatzea da aniztasuna ikastolontzat. Eta ezberdintasun horiek guztiak aitortu, baloratu eta errespetatzeak dakar hezkuntza inklusibo eta bidezko bat sustatzea, non profesionalek aniztasuna aberastasun iturri gisa ulertzen duten, eta ikasle guztiei begira ikaskuntza prozesuan egon daitezkeen oztopoak identifikatu eta horiek desagertarazteko edo gutxienez lausotzeko lan egiten duten: askotariko baliabide eta aukerak eskainiz, beharrezko doikuntzak eginez, ikasle bakoitzari behar duen arreta eskainiz eta abar... ikasleek bere potentzial osoa garatzeko aukera berdintasunak izan ditzaten eta ikaskuntza prozesuan guztiek arrakasta bizi dezaten.




Janire Gracia, Nafarroako Ikastolen Pedagogia arduraduna

Zigor Ibarzabal, Ikastolen Elkarteko Hezkuntza Arduraduna



Gure Hezkuntza Marko Orokorrean finkatuta dugun Pertsona Ereduak ikasle guztiengana beren behar izanak kontuan hartuz heltzea eskatzen digu, eta ikasturte honetan bertan martxan jarri dugun tutoretza eredu eta ikuspegi berriak urrats hori egiten lagundu behar digu. Horregatik, ikasturte honetan bultzada eman nahi izan diogu hezkuntza inklusiboari. Aurtengo lehenbiziko Zuzendarien Mintegi Nazionalean, esaterako, hezkuntza inklusiboa jorratu dugu, ikastoletako esperientzia batzuk ekarriz eta kanpo adituen ekarpenak jasoz. Baina ikastolon barne prestakuntzaz harago, gizartearekin ere partekatu nahi izan dugu gure ikuspuntua, eta gai honetan aditu eta arituak diren pertsonen ekarpenak ere jaso nahi izan ditugu. Horregatik antolatu ditugu Ikastolen 29. Jardunaldi Pedagogikoak Bagatoz inklusiotik ekitatera lelopean..



URRATSEZ URRATS GOAZ HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN HOBEKUNTZA PROZESUAN

1. Onartu ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dutela, haien ezaugarriak, gaitasunak edo egoerak edozein direla ere, edozein bazterketa edo diskriminazio mota baztertuz.

2. Ikaskuntzarako eta parte hartzeko oztopoak sistematikoki identifikatu eta ezabatu, ikasle batzuei aurrera egitea eragozten dieten egiturazko oztopoak, nahiz kulturalak eta pedagogikoak aztertuz.

3. Lidergo banatua eta partekatua garatu, hobekuntza-erantzukizunak hezkuntza-komunitateko kide guztiei eskuordetuz, irtenbide inklusiboak elkarrekin sortzeko.

4. Hezkuntza-laguntza eta orientazioa pertsonalizatzea, aitortuz ekitateak ez duela esan nahi ikasle guztiei tratu berdina ematea, baizik eta ikasle bakoitzaren behar indibidualetara egokitzea.

5. Irakaskuntza-praktikari buruzko ikerketa kolaboratiboa eta etengabeko hausnarketa sustatu, non irakasleak beren irakaskuntzaren ikertzaile bihurtzen diren eta aurkikuntzak partekatzen dituzten.

Dekalogo moduko bat

Euskal Herriko eta nazioarteko lau aditu izan ziren jardunaldiotan, eta azaldu ziguten nola landu aniztasuna eta hezkuntza inklusiboa eskola erakunde eta sare bezala eta gela barruan. Haien esanetatik eta idatzietatik inklusioari, ekitateari eta eskola-hobekuntzari buruzko hamar printzipio bildu ditugu, dekalogo moduan:

6. Eskolen artean sare kolaboratiboak eta praktika-komunitateak eraiki, baliabideak, ezagutzak eta esperientziak partekatuz, hobekuntza (norbanakoa eta kolektiboa) sustatzeko.

7. Familiak eta komunitateak aktiboki inplikatu estrategia inklusiboen diseinuan eta ezarpenean, eskolaren hobekuntza erantzukizun partekatua dela aitortuz.




8. Aniztasuna aktibo eta ikaskuntza aukera gisa baloratu, desberdintasunak guztion hezkuntza esperientzia aberasten duten baliabide pedagogiko bihurtuz.

9. Gizarte justuago eta bidezkoago baterantz bideratutako aldaketa iraunkorrak sustatu, hezkuntza inklusiboa eskola bere komunitate testuinguruarekin lotzen duen eraldaketa prozesu jarraitu gisa ulertuz.



MAKUSi



Denboraldi guztiak
ikusgai, **MAKUSi**n!

UME ETA GAZTETXOENTZAKO EDUKIAK, **EUSKARAZ!**

Jaitsi gure app-a!



App Store



Google Play



MAKUSi kluba

**KIDE EGIN
ABANTAILA ESKLUSIBOEZ
GOZATZEKO**



@makusi_eus



makusi.eus/kluba

10. Irisgarritasun unibertsala bermatu, politika, finantzaketa eta azpiegitura egokien bidez, egokitzapenak salbuespenezko ekintzak izan beharrean erakundearen araua izan daitezen.

... eta **11.** Dekalogotik kanpo kokatu dugu hamaikagarren puntua, ikastolen hornez haragokoa baita baina guretzat berebiziko garrantzia dauka hezkuntza formalean bezala hezkuntza ez formalean eragitea, eta hezkuntza gizarte eraldaketarako giltzarria izanik, gizartean beran ere eragitea. Hemen kokatzen dugu hezkuntza inklusiboa garatzeko dugun ahalmena hedatzea aisialdira eta eskola kirolera, bai eta euskaldun izateko modu anitzei eta kultura ezberdinak bizitzeko eta elkarbizitzeko modu desberdinei ateak irekitzea.



Agurne Barruso, Ikastolen Elkarteko Zuzendari Nagusia





Prozesu dinamiko bat

Non kokatzen gara ikastolak eta ikastolen sarea printzipio hauekiko? Zenbat betetzen ditugu? Non gabiltza herrenka? Zaila egiten da galdera hauei erantzutea. Behar bada, adituon bidetik jo behar da, aitortuz prozesu dinamiko bat dela hezkuntza inklusiboaren hobekuntza, eta ez helmuga bat; ikastolaren etengabeko konpromisoa eskatzen duela gogoetarekiko, ikaskuntzarekiko eta berrikuntzarekiko, eta hobekuntza ez dela aginduz etortzen, baizik eta modu kolektiboan erabakiz eta definituz zer den guztiontzako kalitatezko hezkuntza. Eta bereziki, aniztasuna ospatuz, aberastasun gisa hartuz, eta ez derrigorrez kudeatu beharreko erronka bat bezala.






Bagatoz lanera, **heztera,** **jolastera,** **eraldatzera.**

**Egiteko garrantzitsua dugu:
etorkizuneko gizartea eraikiko
duten haur eta gazteak heztea;
aniztasunean bizitzen jakingo
duen belaunaldia prestatzea,
munduari irekia izango den
belaunaldia, euskarari eta
euskal kulturari eutsiz eta
hauek garatuz.**



Ikasle bakoitza da garrantzitsua. Ikasle bakoitza eta guztiak dira funtsezko. Horregatik, Ikastolan haur eta gazteek elkarrekin bizitzen ikasten dute, elkar baloratzen, elkar entzuten eta elkarrekin arazoak konpontzen. Aldi berean, bakoitzari behar duen hori eskaintzen diogu, ikasle guztiek beren potentzial osoa gara dezaten eta ikaskuntza-prozesuan arrakasta bizitzeko aukera berdinak izan ditzaten.

Helburu horrekin landu eta jarri ditugu martxan hezkuntza-proiektu berriak, pedagogia berritzaileak eta ikas-material propioak; gizarteak planteatzen dizkigun erronka berriei erantzun ausart eta berriak. Etengabeko mugimenduan dagoen hezkuntza-komunitatea gara. Ikastolan irakasle, hezitzaile, profesional eta zuzendaritza talde prestu eta prestatua dago, familiekin harreman estu eta etengabean lanean.



Elkarrekin, komunitate konprometitua osatzen dugu, Euskal Herri osoko 115 Ikastolaz eta milaka familiaz osatutako herri zabal eta bizi baten parte. Hezkuntza gizarte-eraldaketarako giltzarria delako, eskolatik harago ere eragin nahi dugu, gizarte justuago, inklusiboago, parekideago, euskaldunago eta zoriontsuago bat eraikitzen laguntzeko. Ikastolan, biharko herritarrak gaurtik ari gara prestatzen, euren burua eta ingurua eraldatzeko gai izango diren pertsona aske eta arduratsu gisa.



Bagatoz, gogo
biziz, lanera,
heztera,
jolastera,
eraldatzera...
Eta zu?
Bazatoz?



Gure ikasleen ahotan



ONINTZA ETXEBESTE LIRAS Kultur eta Sormen Industriak

Zerk egiten du Kultur eta Sormen Industriak gradua gaur egungo gazteentzat aukera erakargarria? Egungo gazteak gai dira askotariko formatuetan sortzeko, edukiak partekatzeko, antolatzeko eta, azken batean, gure kulturen eragiteko. "Zaletasun" hutsetik baino, graduak aukera eman nahi du gaitasun horiek modu

profesional eta egituratua lantzeko, hau da, ikasleen interesekin konektatu eta hori guztia lanbide bihurtzeko.

Zer lantzen da edo zein da graduaren oinarria? Graduaren ardatzak sormena, kudeaketa, komunikazioa eta berrikuntza dira, eta arlo horiek elkarlotuta lantzen dira, besteak beste, teknologia, proiektugintza eta adimen artifiziala bezalako gai eta erronkekin uztartuz. Lehen bi urteetan oinarritzko ezagutzak lantzen dira, eta ondorengo bietan profesionalizazio-bidea indartzen da. Bi praktikaldi egiten dituzte ikasleek (orokorra eta ibilbidearekin loturikoa), eta kanpo-egonaldi bat ere egiten da Londresen edo Berlinen. Esperientzia hori osatzeko ibilbide bat aukeratu dezakete (moda, musika edo ikusizko arteak). Bidean, adibidez, musika ekitaldi bat antolatzen, moda bilduma bat ekoizten, ikusizko arteak gizarteratzen edota proiektu berriak diseinatzen ikasten dute. Lanbidearen ikuspegi desberdinetara gerturatzen dira, eta kulturak gizartean duen eraginaz ere hausnartzen da, aztertuz zein garrantzia duen gure komunitatean.

Zer trebetasun praktiko ikasiko dituzte ikasleek? Zein da horretarako erabiltzen den metodologia? Oso modu praktikoa egiten da lan, taldean eta erronken bitartez kasuak aztertuz, proiektuetan arituz eta kultur eragile edo enpresen esperientziatik ikasiz. Ikasleek ideiak proiektu errealek bihurtzeko trebetasun teoriko eta teknikoak barneratzen dituzte, talde-lan profesional batean aritzeko moduan.

Zein irteera izan ditzake gradu honek? Zein lan aukera irekitzen dira? Lan aukerak handiak dira (kultur eta sormen industriak BPGaren %4 inguru dira), eta lanbideen artean daude kultur kudeaketa, programazio kulturala, ekitaldi eta interakzioen diseinua, social manager edo media planner izatea, zuzendari kreatiboa, prozesu sortzaileen dinamizazioa, kultur laborategien zuzendaritza, eta beste asko.



Hezkuntza inklusiboaren hegiak

Dimentsio eta alderdi anitzeko gaia da inklusibotasuna. Horietako hegi batzuk jorratu genituen Ikastolen 29. Jardunaldi Pedagogikoetan: inklusioa gelan, inklusioa ikastolan, inklusioa eta kulturartekotasuna, eta inklusioa aisialdian eta jarduera fisikoan. Euskal Herriko eta nazioarteko adituek azaldu zizkiguten, eta haiek elkarriketatu ditugu: Serge Ebersold, Ane Urizar, Mel Ainscow eta Uxue Fernandez.



Serge Ebersold

“Irisgarritasunak eskola inklusiboa babesten du ikastetxeak ikasleak nola ahaldundu aztertzeraz bultzatzen dituelako”

hezkuntza prozesuan besteekin berdintasunean nola parte hartu ahal izango duen aztertze. Eta zentzu honetan, irisgarritasuna ikaslearen eskubide gisa aitortutako hezkuntza eskubidea eta hezkuntza prozesuan parte hartzearen eskubidea bateratzea da, sozialki integratu eta beste edozein bezain berdinean aitortu ahal izan dadin.

Frantziako Arte eta Lanbideen Kontserbatorio Nazionaleko irakaslea da Serge Ebersold. Inklusioaren gaia lantzen ibilbide luze eta emankorreko aditua dugu bera. Irisgarritasunaren katedraduna da eta irisgarritasunaren soziologia garatzen du. Gai honen inguruan nazioarteko erakunde nagusientzat ere lan egin du, besteak beste: Nazio Batuentzat, Europako Batzordearentzat, OCDErentzat eta Munduko Osasun Erakundearentzat.

Zer da irisgarritasuna?

Irisgarritasuna ez da egokitzearekin nahastu behar. Irisgarritasunak eskatzen du aztertzea irakaskuntza praktikak, laguntzak eta egokitzeak nola kokatzen duten haurra hezkuntza prozesuan besteekin berdintasunean parte hartze. Horrek esan nahi du baliabideak esleitzeaz harago joatea, ikasleak



Nola laguntzen du irisgarritasunak eskola inklusibo bat eraikitzen?

Irisgarritasunak eskola inklusiboa babesten du hezkuntza erakundeak, eta zehazkiago ikastetxeak, ikasleak nola ahaldundu aztertzea bultzatuz; adibidez, ikasle gisa jarduteko beharrezko baliabideak emanez. Irisgarritasuna ere baliabide bat da eskola inklusibo batentzat, erakundeak ikasleen parte-hartzeari buruz hausnartzera bultzatuz. Nola ahalbidetzen diete egokitzapenak eta laguntza neurriek ikasleei eskola bizitzan besteekin berdintasunean parte hartzea? Nola ahalbidetzen diete irakaskuntza-praktikek, egokitzapenak eta laguntza-neurriek ikasleei eskola-ingurunean besteekin berdintasunean parte izatea? Beste era batera esanda, ezin dugu ikaslea ikasle gisa ikusi, besteak bezala eta modu berean zeregin berdinak egiten uzten ez badiogu, horrek aurreiritziak, estereotipoak eta abar gainditzeko aukera emango digulako. Hirugarrenik, irisgarritasunak eskola inklusiboa babesten du, eskolari ikaslea nola lagundu hobekien hausnartzeko aukera ematen dion heinean. Eta, laugarrenik, irisgarritasunak eskola inklusiboa bultzatzen du, eskola kontuan hartzea bultzatzen baitu nola praktikek ahalbidetzen duten ikaslea besteak bezain errespetatua eta baloratua sentitzea. Beraz, irisgarritasunak eskolak gonbidatzen ditu hezkuntza-egokitzapenak, laguntza eta abar konbinatzera, ikaslea ahaldundutzeko, ikaslea eskola-bizitzaren parte izateko eta, azken finean, pertenezia-sentsazioa sustatzeko.



IRISGARritasuna EZ DA EGOKITZAPENAREKIN NAHASTU BEHAR

Nola bihurtu irisgarritasuna esparru arauemaile berria?

Irisgarritasuna esparru arauemaile bihurtu daiteke, eskolako interesdunak ikaslea beste edozein ikasle bezain zilegitzat hartzeko moduan jartzen direnean. Eta zentzu honetan, irisgarritasuna esparru arauemaile bihurtu daiteke, baldin eta ikasleek behar duten laguntzara soilik mugatu beharrean eskola-sistema bera egituratzen den modura hedatzen bada. Hau da, nola kokatuko ditugu eskolako eragileak irakaskuntza-praktikak bereizteko? Familiak prozesu horiek elkarrekin eraikitzeke moduan jarriko al ditugu? Eta zentzu honetan, ikaslearen garapena gure kezken erdigunean jartzea garrantzitsua iruditzen zait, ikuspegi honen bidez kontuan har dezakegulako desberdintasuna, ez ikaslearen berezitasunean, baizik eta ikasleak beste ikasleekiko, irakasleekiko eta abarrekiko duen posizioan, egindako lanak ikaslea normalizatzea baino gehiago, ikasle hori ikaslearen rola besteekin berdintasunean betetzeko moduan jartzen duten baldintzak sortzea helburu izan dezan. Beraz, ikaslearen garapena erdigunean jartzeak ikaslea beste edozein ikasle bezala bilakatzea eta beste edozein bezala garatzeko beharrezkoak diren baldintzak bilatzera gonbidatzen gaitu.



Ane Urizar Zugazagoitia

“Identitate pluralak bere baitan hartzen du bertakoa ere izan daitekeela norbere jatorriari huts egin gabe”

Ane Urizar Zugazagoitia doktorea Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikertzailea eta Arrakala ikerketa taldeko kidea da. Migrazio fenomenoak, identitatea, kulturartekotasuna eta kulturarteko hezkuntza jorratu ditu eta jorratzen dihardu.



Ikasleen ahotsak ekarri dituzu eta ikasle arrazializatuek identitate iraikitzean euskal testuinguruan aurkitzen dituzten zailtasunak aipatu dituzu, zeintzuk dira zailtasun horiek?

Ikasle horiek sentitzen dute, arrazializatuak izateagatik, ezaugarri fenotipikoengatik, janzeragatik (emakume musulmanen kasuan esaterako zapia eramateagatik)... behin eta berriro esaten ibili behar dutela bertakoak ere badirela; uste dute komunitatetik kanpo uzten ditugula beren itxurarengatik, eta askotan ematen du baldintza batzuk bete behar dituztela bertakotzat jotzeko, besteok bete beharrik ez ditugun baldintza batzuk.

Identitate plurala kontzeptuaz aritu zara eta adierazi duzu eskola testuinguruan landu behar dela, zergatik uste duzu landu behar dela identitate plurala eskolan/ ikastolatan?

Aurreko galderan esaten nuen bezala, askotan banaketa egiten dugu: gu eta besteak. Eta bestekotasun hori azpimarratzen dugu. Identitate pluralarekin egiten dugu bere baitan hartu bertakoa ere izan daitekeela norbere jatorriari huts egin gabe. Hemengoa eta hangoa izan daitekeela eta ez daukala hautatu behar batekoa edo bestekoa izatea. Hori azpimarratzen du, eta baita elkarrekikotasuna, elkar-ulermena... identitate iraikitzea horretan familia atzeritarretatik datozen seme-alaba horiek aukera izan dezaten bai eskolan, bai familian, bai gizartean, diren bezalakoak izateko ezeri uko egin beharrik gabe.



**IDENTITATE
PLURALAREKIN
EGITEN DUGU
BERE BAITAN
HARTU
BERTAKOA
ERE IZAN
DAITEKEELA
NORBERE
JATORRIARI
HUTS EGIN
GABE.
HEMENGOA ETA
HANGOIA IZAN
DAITEKEELA ETA
EZ DAUKALA
HAUTATU
BEHAR BATEKOA
EDO BESTEKOA
IZATEA**

Uste duzu hezkuntza inklusiboak baduela arrazakeriaren aurkako ikuspegirik?

Bai, badauka. Inklusioaren zapiaren pean doa, baina bai egin behar dugula indarra aniztasun horiek, edo askotariko egoera horiek, aintzat hartzeko, lantzeko... hori da hain, zuzen ere, kulturartekotasunaren gaia bera.



Mel Ainscow

“Haur batzuk etiketatzea oztopo bat da, berehala adierazten baitu haur horiek zailtasunak izango dituztela eta bereizi egingo dituztela”

Manchesterreko Unibertsitateko irakasle emeritua da Mel Ainscow, Glasgowko Unibertsitateko Hezkuntza fakultatean irakasle eta Queenslandeko Teknologia Unibertsitateko irakasle elkartua. Hezkuntza-aditu ospetsua da, eta bereziki hezkuntza inklusiboaren arloan egindako lanagatik da ezaguna. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearekin eta hainbat gobernurekin lan egin du, hezkuntza-sistemak inklusiboago bihurtzeko politikak garatzen lagunduz.





Inklusioaz hitz egiten dugunean, haur guztien sarbidea, parte hartzea eta arrakasta baldintzatzen duten oztopoak gainditzeaz ari gara. Zure ustez, curriculuma bera izan al daiteke oztopo bat?

Uste dut asko hitz egiten dugula haur batzuek jasaten dituzten oztopoei aurre egiteari buruz. Testuinguru-oztopoei buruz ari gara. Beraz, asko daude. Horietako bat curriculuma da. Curriculuma ez bada haur guztiak kontuan hartuta diseinatzen, noski, berehala bihurtzen da hori oztopo haur batzuentzat. Horrekin lotuta, noski, haurren aurrerapena nola ebaluatzen dugun galdera dago. Haur batzuek aurrerapen motela egiten dute. Ospatzen al dugu haien aurrerapena? Beraz, curriculumaren eta ebaluazioaren arteko lotura guztiz funtsezkoa da.

Hezkuntza sistemak ezarritako prozedurek behartu egiten gaituzte ikasleak etiketatzea, baliabide pertsonalak jasotzeko edo curriculum-egokitzapenak egiteko. Nola ikusten duzu ikasleak etiketatzeko joera hau?

Haur batzuk etiketatzeko modua beste oztopo bat da, berehala adierazten baitu haur horiek zailtasunak izango dituztela eta bereizi egingo dituztela. Beraz, nola edo hala, horri aurre egiteko modua aurkitu behar dugu.. Askok lan egiten dut Portugalen, munduko hezkuntza-sistema inklusiboenetako bat baita. Portugalen leloa da ez duzula etiketarik jarri behar esku hartzeko. Ez duzu etiketarik jarri behar esku hartzeko.

CURRICULUMA EZ BADA HAUR GUZTIAK KONTUAN HARTUTA DISEINATZEN, NOSKI, BEREHALA BIHURTZEN DA HORI OZTOPO HAUR BATZUENTZAT

Nola garatu ditzakegu ikasgela osorako praktika inklusiboak, irakasle laguntzaileak ikasle gutxi batzuen indar osagarri diren eredu batetik urrunduz?

Ikasgelako praktika eta antolaketa funtsezkoak dira hezkuntza inklusiboaren garapenean. Eta ikerketa askoren arabera badakigu ikasgelako zenbait ikuspegik ingurune inklusiboagoa sortzeko aukera dutela, batez ere hurrengandik haurrentzako ideia, non noizean behin haurrak bikoteka lan egiten duten taldeka elkarri lagunduz. Horrek ingurune inklusibo naturala sortzen du. Beraz, niretzat, ikaskuntza kooperatiboa, hurrengandik haurrentzako, estrategia zentral absolutua da.



Uxue Fernandez Lasa

“Kirola %80 eta jarduera fisikoa %20 izan ordez, saia gintezke %60-%40ra iraultzen portzentaje hori”

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktore eta EHUKo Heziketa Fisikoa eta Kirola saileko irakasle-ikertzailea da Uxue Fernandez Lasa. Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldeko eta AKTIBOKi lan taldeko kidea ere bada.



Zein izango litzateke zure ustez Jarduera Fisikoa inklusiboagoa izateko lehen urratsa?

Lehen urratsa, garrantzitsuenak litzateke jarduera fisikoaren ikuspegi zabala izatea eta hor kokatzea kirola. Aisialdiko jarduera fisikoko eskaintza gehienetan kirola oso egituratua delako, oso klubak baitakoa, oso lehiara bideratua. Horri buelta ematea litzateke beste urrats garrantzitsu bat: %80 kirola %20 jarduera fisikoa izan ordez saia gintezke %60-%40a iraultzen portzentaje hori.

Eskola kiroleko ereduak, hauen aldaketa eta Gipuzkoako ereduaren inguruko epaiak (kirol-aniztasunaren derrigortasuna bertan behera utziz) eta honen inguruko azken aldaketan eraginez inklusioaren sustapena nolakoa izan daitekeela uste duzu?

Erronka berri bat sortu du epai horrek. Gaur egun momentuz, datuek diote ikasturte hasieran %30 jaitsi dela dagoeneko eskola kiroleko eredu horretan izena eman duten haurren kopurua. Uste dut erronka izan beharko lukeela, kirol klubak eskaintzan inklusioa txertatzea, baina jakina da egiturak nahikoa mugigaitzak eta zailak direla aldatzen, baina izan daiteke jarduera fisikoa sustatzeko kirol aniztasunean dabiltzan begirale edo hezitzaile multidiziplinarrak gerturatzea kirol egituretara. Dena den, zer gertatuko da kirolek, lehiatik, aldendu diren horiekin?

USTE DUT ERRONKA IZAN BEHARKO LUKEELA, KIROL KLUBEN ESKAINTZAN INKLUSIOA TXERTATZEA, BAINA JAKINA DA EGITURAK NAHIKOA MUGIGAITZAK ETA ZAILAK DIRELA ALDATZEN

Euskal Herri mailan zein izango litzateke zure ustez hezkuntza erakundeek jokatu beharreko papera, eskaini beharreko baliabideak, formazioa... benetan aisialdia inklusiobagoa eta euskaldunagoa izateko?

Lehenengo kontua izango litzateke aisialdia eta euskalduntasuna erdigunera eramatea, eta, aldi berean, jarduera fisikoa ere erdigunera eramatea. Horiek askotan plus bat bezala hartzen dira, aukera bezala, baina buelta emango bagenio eta saiatuko bagina mugimenduaren bidez beste arlo guztiak beste balio guztiak lantzen, egoera irauli egingo litzateke. Bestalde, eskola kirolean hezitzaile edo begiraleen egitekoa oso boluntarioa da, eta askotan gazteenak daude gazteenekin. Agian kontrara pentsatuko bagenu eta adituenak eta arituenak jarriko bagenu adin eta esparru horietan, izan daiteke egoera iraultzeko edo behintzat beste era batera pentsatzen eta egiten saiatzeko bitarteko aproposa.



IKASTOLAN



24 IKASTOLAN





BIHOTZ-GAZTEA IKASTOLA
BILBO

Historia jolasean, teknologia eta sormena uztartuz

**Historia irakasteko modu berritzailea garatzen dute,
pentsamendu kritikoa, sormena eta gaitasun digitalak uztartuz**

ERENTZUN IKASTOLA
VIANA

Garbiketa Team: Ingurua zaindu, kontzientzia sortu

Erentzun Ikastolako ikasleek ekintzetatik ikasten dute

LAUTADA IKASTOLA
AGURAIN

Komunitaterako proiektua LH

Liburutegia eta irakurketa txokoak sortu eta berritu

ORERETA IKASTOLA
ERRETERIA

Blaitu Kluba: Mihiak euskaraz bustitzeko ekimena


**Proiektuaren ardatzak komunitatea, aisia eta teknologia eta
etengabeko ekintza dira**

Historia jolasean, teknologia eta sormena uztartuz

“Let’s Create Modern Games to Play History” diziplinarteko proiektua da, Gizarte Zientziak, Teknologia eta Digitalizazioa uztartzen dituen. Helburua da ikasleek XX. mendeko lehen erdiko gertakari historiko nagusi bat — Lehen Mundu Gerra, Bigarren Mundu Gerra edo Espainiako Gerra Zibila, besteak beste— ikertzea eta ikasitakoa taula-joko baten bidez irakasteko modura bihurtzea, 3D-n inprimatutako elementuak erabiliz.



“Let’s Create Modern Games to Play History” diziplinarteko proiektua da, Gizarte Zientziak, Teknologia eta Digitalizazioa uztartzen dituen. Helburua da ikasleek XX. mendeko lehen erdiko gertakari historiko nagusi bat —Lehen Mundu Gerra, Bigarren Mundu Gerra edo Espainiako Gerra Zibila, besteak beste— ikertzea eta ikasitakoa taula-joko baten bidez irakasteko modura bihurtzea, 3D-n inprimatutako elementuak erabiliz.



Proiektuaren bitartez, ikasleek Historiaren ulermena eta ikuspegi anitzak lantzeaz gain, 3D diseinuaren eta fabrikazioaren oinarriak ikasten dituzte (Tinkercad, Qcad, laser-grabatua...). Historia irakasteko modu berritzailea garatzen dute, pentsamendu kritikoa, sormena eta gaitasun digitalak uztartuz. 13 saio didaktikotan garatzen da proiektua: gertakariaren aukeraketa, iturri historikoen bilketa eta azterketa, jokoaren diseinu eta ekoizpena, eta azkenik, aurkezpena eta hausnarketa. Ekoizpen-prozesuan ikasleek dokumentazio eta prototipo desberdinak sortzen dituzte: gertakariaren laburpena, iturrien analisisa, diseinu-eskemak, 3D iterazioak, arau-liburua eta aurkezpenaren gidioia.



Ebaluazioa modu partekatuan egiten da: irakasleen, ikasleen eta taldekideen artean, autoebaluazioa eta koebaluazioa barne, errubrika bidez. Emaitzak, gainera, oso sortzaileak dira. Adibidez, ikasle talde batek **“II. Mundu Gerrako Cluedo”** jokia sortu zuen, jokalariek garaiko pertsonaia, kokaleku eta objektu historikoekin jolasteko aukera izan zezaten, testuinguru historikoan oinarrituta.

Laburbilduz, esperientzia honek **STEAM ikuspegitik Historia irakasteko modu aktibo eta berritzailea** eskaintzen du, ikasleak Historiaren ikasle ez ezik, **historia sortzaile** ere bihurtuz.

Garbiketa Team: Ingurua zaindu, kontzientzia sortu

Erentzun Ikastolak 2014. urtetik du ingurumenarekiko konpromiso sendoa, EsenRed eskolen sarean parte hartzen hasi zenetik. Sare horrek jasangarritasuna eta hezkuntza komunitatearen parte-hartzea sustatzen ditu. Horren barruan sortu eta arrakasta handia izan duen ekimena da **Garbiketa Team**.

ERENTZUN IKASTOLAKO IKASLEEK EKINTZETATIK IKASTEN DUTE

28 IKASTOLAN





Proiektuak **ikasleen protagonismoa eta ekintza zuzena** lantzen ditu. Hilabeteen behin, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak taldeka antolatzen dira ikastolako barruko eta kanpoko espazioak garbitzeko. Aurkitzen duten zakarra jasotzen dute, ontzi egokietan sartuz, eta hondakinen **bereizketa egokia** ikasten dute.

Baina Garbiketa Team ez da soilik garbiketa: **kontzientziazioa eta balioak** transmititzen ditu. Ikasleek zuzenean ikusten dute zenbat hondakin sortzen den egunero eta horrek ingurumenean duen eragina. Jarduera honek hausnarketarako eta elkarriketarako espazioak sortzen ditu honako gaietan:

- **Hondakinen kudeaketa:** Nola murriztu, birziklatu eta berrerabili gure hondakinak.
- **Planetarekiko eragina:** Ekintzek Lurrean duten azterna ulertzea.
- **Materialen kostua:** Hondakin bakoitzaren ekoizpen- eta baliabide-kostua ezagutzea.



Garbiketa Team ekintza **ikastolatik herrira** ere zabaltzen ari da. Adibidez, duela gutxi **Kuetoko pinudia** garbitu zuten ikasleek, herriari ekarpen baliotsua eginez eta **lankidetzan, erantzukizuna eta elkartasuna** sustatuz.

Laburbilduz, proiektu honek ikasleei aukera ematen die **ekintzetatik ikasteko**, ingurua zaintzeko konpromisoa hartzeko eta balio garrantzitsuak barnerratzeko, jolasean eta parte-hartze aktiboan oinarrituta.

Komunitaterako proiektua LH

Azken ikasturteetan, nabarikoa izan da ikasleen interes falta gai desberdinak jorratzeko unean zein erakutsi dituzten zailtasunak hitzak ulertzeko edo deskodetzeko momentuan. Badakigu distrakzio digitalen, etxean irakurketa-eredurik ez izateak eta beste arrazoi batzuek eragina dutela irakurketarako interesik ez izatean.

Horregatik, Lehen Hezkuntzako Irakurketa maila hobetzea eta irakurzaletasuna bultzatzea izan ziren proiektua aurrera eramateko arrazoi nagusiak. Horrez gain, ikastolan dagoen liburutegiaren eremua erabili ahal izateko hobetzea eta txukuntzea ezinbestekoa zenez, proiektu honetan txertatu genuen. Liburutegiaz gain, ikastolan 2 irakurketa txoko sortu genituen.

IRAKURKETA TXOKOAK ETA LIBURUTEGIA SORTZEA BEHARREZKOAK ZEN

Espazio berriak sortu eta hornitzeko hainbat elementu behar ziren; honenbestez, familien inplikazioa eta ekarpen ekonomikoa ere beharrezkoak izan ziren. Hasieratik prozesua azaldu zitzaien, familia eta agente inplikatu gisa, honen garrantzia eta helburua ulertzeko asmoz. Hainbat ekintza antolatu izan dira, guztiak irakurketarekin lotuta, eta horietako batzuetan familiek parte hartu dute.

PROZESUA

Dena aurreikusita bezala eta ahalik eta ongien atera zedin, kronograma bat sortu genuen.

Aipatu beharra dago prozesu osoan zehar bai familiak, bai ikasleak eta bai irakasleak ere oso motibatuta egon direla. Gainera, ekainean





liburutegiaren inaugurazioa egin zen eta DBH4.mailako ikasleek eta jubilatzeaz zeuden bi irakasleek haiek dedikatutako liburu baten dohaintza egin zuten liburutegi berrian izateko. Gure egunerokotasunean ere irakurketa txokoetara joateko uneak txertatu ditugu.

Ikasturte honetan **komunitaterako proiektuan** irakurketa lantzen jarraitzea erabaki dugu. Motibazioa beti presente egon behar denez, teknika desberdinak landuko ditugu.

Jarraian burututako ekintzak zerrendatzen dira:

- LH etapako irakasleei, **proiektuaren aurkezpena**
- LHko talde guztien ikasleei **gaiaren inguruko sentsibilizazioa**
- **Azoka** (orri-markatzaileak eta miniliburuak)

- **Ipuin bilketa**
- **Zozketa**
- **Azoka** (asmakizun sorpresa)
- **Irakurketa eta antzerkia** “bederatzi antxumeak”
- **Ipuin kontaketak**
- **Liburutegia hustu, garbitu, liburuak antolatu, paletak margotu...**
- Kurtso amaierako ekitaldia. **Liburutegiaren inaugurazioa**
- Familiei **eskerrak eman**, ateratako eta gastatutako diru kantitateak jakinarazi eta prozesu osoa ikusten den bideoa helarazi

Blaitu Kluba: Mihiak euskaraz bustitzeko ekimena

Orereta Ikastolak martxan duen **Blaitu Kluba** proiektuak euskararen erabilera sustatzea du helburu, ikastolako komunitate osoa hizkuntza horretan aktibatuz. Proiektuaren leloa: **"Blaitu mingainak eta busti euskaraz!"**, gonbite bat da euskaraz pentsatzeko, hizketan egiteko, adierazteko eta jolasteko.

Blaitu Klubaren helburu nagusiak ikasle, irakasle eta familien artean euskararen erabilera egunerokoa eta naturala bihurtzea, euskal kultura sustatzea eta komunitate kohesionatuagoa sortzea dira. Horretarako, **video-programak, lehiaketak, kantuen playlist-ak, jolasa eta familien parte-hartzea sustatzen dituzten ekintzak** eskaintzen dira ikasturte osoan.



Proiektuaren ardatzak **komunitatea, aisia eta teknologia eta etengabeko ekintza** dira. Lehen Hezkuntzan, Blaitu Klubeko irakasle dinamizatzailerek bideratzen dituzte saio hauen edukiak eta programen grabaketak eta geletako *Blaitu-ordezkariek* arduratzen dira aurkezle zein aktore lanez. Bigarren hezkuntzan, *Blaitu Gaztea* osatzen duten ikasle boluntarioek hartzen dute lan horiek guztiak bideratzeko ardura, irakasleen laguntzarekin. Batzuek zein besteek luzatutako proposamenek ikasle eta familien parte-hartzea bultzatzen dute, modu ludiko batean euskaraz komunikatzeko ohiturak indartuz.

Baina Blaitu Kluba ez da soilik ikastolara mugatzen: ekintza batzuk **herri mailan** ere egiten hasi dira, herriko jaietan antolatzen duten *Blaitu festa* edo Euskaraldirako prestatutako *Erronkak* saio berezia esaterako, eta gaur-gaurkoz proiektua **eskualde mailara nola zabaldu** aztertzen ari dira hainbat eragilerek. Horrela, euskararen erabilera komunitate zabalagoan sustatzen da eta hizkuntza-ohiturak etengabe sendotzen dira, helburu berari erantzun nahian gabiltzan eragileon arteko elkarlana sustatuz.



Blaitu Klubak hortaz, **euskararen erabilera aktiboa** bultzatzen du, hizkuntza eta nortasunarekiko konpromisoa indartuz. **Proiektuak hizkuntza komunitate ikuspegitik lantzea ezinbestekoa dela erakusten du, ikasgelatik harago, espazio sozial eta familiarretan ere hizkuntza ohiturak hedatzeko.**

Laburbilduz, esperientzia honek ikasleei, familien komunitateari eta herriari aukera ematen die **euskaraz ikasteko, jolasteko eta komunikatzeko**, ikastola espazio bizia eta sormenez betea bihurtuz.



PLAZAN



HITZ eta JOLAS


Literatura eta jokoak uztartu ditugu *'Hitz eta jolas'* egitasmoan, hitzak erabiliz gozatzea eta jolastea nahi baitugu, baita ikastea ere, euskaraz. Ateak ireki nahi dizkiegu jakintzari, irudimenari, jostetari, zirrarari, gure eskaintzarekin. Aurtengo uzta ere oparo dator, adiskide berriak barne. Ohiko dendetan eskuragarri dira dagoeneko, eta Durangoko Azokan ere aurkituko dituzu.

Ikusi eskaintza
guztia





Lula otsoa



Udazkenarekin batera iritsi zaigu Lula otsoa, ikastoletako haurren adiskide berria. Hamar liburuz osatutako ipuin bilduma bat da, eta lehenbiziko bi zenbakiak kaleratu ditugu jada. Martin eta Xabier Etxeberriak idatzi dituzte lehenbiziko bi ipuin hauek, eta Aritz Truebak sortu ditu irudiak. Elkarlanean ekoitziriko bilduma da berau, ULU Mediarekin batera argitara eman baitugu.

“ULU Mediatik soinu fikzioa sortu genuen lehendabizi, baina bertako istorioak ipuin formatura moldatzeko egokiak zirela ikusi genuen berehala, eta horretarako Ikastolen Elkartea bidaide bikaina zela. Izan ere, aniztasunaren gaia jorratu nahi dugu ipuin hauetan, orohar, baita, Euskal Herria bere osotasunean hartuta, euskarak eta bere euskalki ezberdinek eskaintzen diguten aberastasuna ezagutzera ematea ere”, azaldu digu Martin Etxeberriak.

Haurrak segituan egingo dira Lularen eta bidean aurkituko dituen animalia guztien lagun, eta haiek protagonista diren ipuinen bitartez, oharkabea, jabetuko dira euskalkien aberastasunaz, aniztasunaz, laguntasunaz, emozio desberdinez... estereotipoak apurtzeko baliagarriak ere egingo zaizkie kontakizun hauek. Irakurtzeko eta ikusteko eginak dira liburuak, baina entzuteko ere bai, gurasoek lagunduta, edota berariaz sortu diren audioak entzunez, liburu bakoitzak QR kode bat baitu, ipuin hori entzuteko podcast batera bideratzen duena; hainbat euskalkitan hitz egingo dute protagonistek, eta entzuleak ohituz joango dira doinu eta ahoskera desberdinak entzutera.

Ilustrazioei dagokienez, Lula otsoarekin pertsonaia samur eta gogoangarri bat diseinatzeko aukera aurkitu duela uste du Aritz Truebak, "haurrek ezagutu eta gertuko senti zezaketena, Ikastolen Elkartean sortu ditudan beste pertsonaia mugatuagoekin izandako esperientzia zabalduz" Album ilustratu hau sortzea "benetako erronka pertsonala" izan dela aitortu digu, "orain arte komikigintzan aritu bainaiz, eta haurren narratiba bisualarekin esperimentatzeko gogoia nuen".

Truebaren helburua "Lulari forma ikoniko eta sinplea ematea" izan zen, "beste otsoen aldean ezberdina, umeek erraz marraztuko luketen otso bat sortzea". Tratamendu piktorikoa digitala izan da, baina eskuz egin emateko pentsatua, tinta lerroekin eta akuarela motako koloreekin: "Tonu ezberdinak erabili ditut Lularen abenturaren arabera; lehenak hotzagoak bakardadea adierazteko eta bigarren liburukoak zerbait alaiagoak adiskide berriak topatu dituela azaltzeko". Hori guztiori "emozioak transmititzeko helburuarekin" egin du eta "eszenak argiak eta haurrentzako atseginak izatea lortzeko".

"Nire llobak Lula otsoaren ipuinetara kateatu dira, eta ipuinekin gozatzen dutela ikusteak sekulako poza eman dit", aitortu digu.

Eta hurrengo ipuinetan zer? "Ba abentura asko biziko dituzte Lula eta bere lagunak, eta adiskide berriak ere topatuko dituzte, gainera", kontatu digu Martin Etxeberriak. "Batzuetan irri egingo dute, beste batzuetan ikaraldiak eta estualdiak ere izango dituzte, baina beti irakaspen bat jasoko dute abentura bakoitzetik, hori seguru. Ezberdina denaren onarpena eta laguntasunaren indarra, gehienetan, ardatz izango duten istorio berriak izango dira".



Lula otsoa galduta dabil. Bakar-bakarrik geratu da, familia eta lagunengandik urrun. Elur malutei begira liluratua, bere otso-taldetik urrundu da. Elur jauzi batek, gainera, eragotzi egin dio itzulerako bidea. Lula otsokume ausarta da ordea, eta laster negua pasatzeko babesleku berri baten bila hasiko da, horretarako basoaren bihotzean sartu behar badu ere.



Lula otsoa jada ez dago galduta, baina ezin du etxetik atera: negua da eta elurra ari du, hotz handia egiten du! Zorionez ez dago bakarrik, adiskide berriak ditu. Bera bezala zuhaitz erraldoiaren txoko ezberdinetan bizi diren animaliak dira: Bizar ahuntza, Perru perruketa, Marta lepahoria eta beste batzuk. Hasierak, lagun berriekin, ez dira beti errazak izaten ordea, ezta?



IPUIN OIHANEKO KRISEILUA PUZZLEAK



Ipuin-puzzle honek ipuinaren magia eta puzzlearen erronka uztartzen ditu, hurrek kontakizuna eraiki eta bizitzeko aukera izan dezaten. Hurrek Triku, Azeri, Urtxintxa eta Hontzaren abentura desberdinak osatzeko aukera daukate. Pieza guztiak dira beraien artean konbinagarriak, eta honek, hurrei esperimintatzeko, puzzleak nahasteko eta kontakizun berriak sortzeko aukera ematen die, beraien irudimena eta sormena garatuz.



ZAZPIAK BAT karta jolasa



Karta-jolas honekin, Euskal Herri zabalean zehar bidaiatzera eta euskararen herriko kolore anitz eta erakargarriez blaitzera gonbidatzen zaituztegu. Euskal Herriko 7 herrialdeetako bakoitzak 6 karta ditu, sei gai nagusiren inguruan: hiriburuak, artea eta musika, natura, inauteriak, gastronomia eta kirola.



ARGITXO

Txikienek kolorearen eta irudimenaren bidez Argitxoren mundu magikoa ezagutzeko aukera dute liburuxka dibertigarri hauen bidez. Argitxo margotzen bildumak marrazki eta jarduera sinpleak eskaintzen ditu. Haurrek ikasi eta sortzeko bide atsegina izan dezaten.



Xabiroi

komikien bildumako ale berezi honek Maurizia Aldeiturriaga panderojole eta musikari zeberioztarraren bizitza dakarkigu, iragana eta geroa uztartuz. Komikiaren bidez, irakurleek euskal kulturaren adierazpenak, musika eta tradizioak ezagutuko dituzte, istorio dinamiko eta gaurkotu baten bitartez.



Larunbatak

Ate Irekiak

Badakizu zein gradu edo gradu bikoitz ikas ditzakezun Deuston?

- Hartu parte unibertsitatea ezagutzeko bisita gidatueta
- Galdetu behar duzuna Deustuko irakasleei
- Jaso sarrera eskaera egiteko jarraibideak

Urtarrila

17

Otsaila

14deusto.eus/ateirekiak

